


Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko irailak 3 / III. urtea / 91. zenbakia



Koldo Artola eta
Antonia Anauten
arteko solasaldiak
1971tik 1975era
bitarte izan ziren.
Orduan hasi zen
urte guzti hauetan
iraun duen jar-
duera etengabea.
ANDER GILLENEA



Mugetako testigantzak

Antonia Anaut izabarra izan da adibide famatuena. Euskararen atzerakadaren erakusgarriak, itzuliko ez diren mintzaira eta kulturen jabeak. Koldo Artola donostiarrak 25 urte eman ditu handik eta hemendik, testigantzak jasotzen, hasieran jakinminez, ondoren biltze lana egin nahian. Urte guzti hauetan mugetan aritu da ia beti, erronkaria, zaraitzua eta hegoaldeko goi nafarreraren azken aztarnak biltzen eta grabatzen. Funtsezko dokumentazioa, urte hauek erabakigarriak izan baitira muturretako inguru hauetako euskararendako. Kalterako, jakina.

Jasotako ondarearen zati handi bat duela hamar urte Aranzadi Zientzia Elkartek argitaraturiko atlas etnolinguistikoa dago jasota, eta kanpoan gelditu dena egunen batean argitaratzeko gogo dauka. Mugetakoak baitira, mugek beraiek dagoeneko gaindituak.

Metropoli forala



FELIPE RIUS


Goytisolori bezala, neri ere betidanik gustatu zaizkit nahasketa handia duten lekuak, arraza guztiak ikus daitezkeen azokak eta kultura desberdinek elkarri mesedeak eta prestamoak egiten dizkioten gu-neak. Duela zenbait urte bazirudien zorionez horretara gindoa-zela, gizartearen zati handi batek mundua hobetzeko posibilitateak zeudela uste zuen eta utopiak errealitate bihurtuko zirelakoan lasai ibiltzen ginen kotxe zaharretan etorkizunerantz, baina azken bolada honetan gertatukoak oihaltz bat zabaldu du paisaia eta errepideak moztuta daude. Ertzeetan eserita, lokamuts baten erdian gaudela pentsatzen dugu sarritan eta begiak igurtzen ditugu dena desagertuko delakoan, baina ez, hor daude Bosniako hilketak, gerra bat baino gehiago, garai baten bukaera markatzen duen 'garbiketa etnikoa', hor dago, laku baten erdian, europar zibilizatuaren begirada inespresiboen aurrean itotzen ari den neskato marokkiarra, hor daude gobernuak biharamunean muga desolatu batean jarriko dituen inmigranteak, hor daude berak baino aberatsagoak direlako ijitoak herriatik bota nahi dituzten biztanleak, eta hor dago, azken finean, gure gorpua. Irudi horiek ez dira nolanahi ezabatzen, burmuinetan grabaturik gertatzen dira betirako eta gure nahiak eta desioak estaltzen dituzte, indargabetu. Izuak ez digu mugitzen uzten eta karreteraren ertzetik gorpuen desfilea begiratzen dugu gure buruaren zai. Bosnia, Rotterdam, Tarifa edo Berlin ondoan ditugu, hurrengo bihurtu-nean, eta kontuz ibiltzen ez bagara irentsiko gaituzte, dena kolore bakarrekola izango da, aspergarria, eta nazka sentituko dugu gure buruaz. Europaren mitoa bere burua hiltzera doa, pistola garunean jarri du eta nahikoa da skinhead ergel baten kolpe bat kontinente oso bat mila zatitan leher dadin.

Gure aukerak

Abartzuza eta Irantzu

Asteburu honetarako Abartzuza eta Deierrri inguruko ibilbidea antolatu dugu, mendigoizale eta ehiztariek ongi kurritutako bideetatik. Abartzuza, 'erregeen sorlekua', Deierrri inguratuta dago. Ibilbidea Eraul eta Urta (Ameskoabarren) bitarteko bideetatik dabil, eta baita Larraitza eta Urratik Abartzuzaraionokotik ere. Uda aldera artzainek franko erabiliak dira, eta ongi kontserbaturik daude.

Abartzutatik atera eta Eraulera daraman bidetik arteak aurkituko ditugu aurki. Ongi kontserbatutako basoak dira, abeltzaintzaren presioa ere lehen baino laxoagoa baita orain. Eraul utzi eta Larraitzara daraman bidea hartu behar dugu, Azantza Harrietara heldu arte. Etxabarriko Harriak deitzen dute askok, baina bertakoek lehendabiziko izena ezagutzen dute. Bitartean Ollarraten gaudete. Bertan biltzen dira Etxabarritik Abartzuzara eta Erauldik Larraitzara bitarteko bideak. Hortik ikusmira ederra antzeman daiteke Allin, Lokizko mendizerra eta Abartzuzako mendien gainean. Bideari jarraiki, Bedagatik igaroko gara, egun fagoaz beteta, nahiz eta



oso urrun ez den beste garaian apenas zuhaitzik ez zuen. Hortik maldatxo bat igota, Bagasua heldu gara, Irantzuko monastegiaren gainean ikusmira ederra duena. Hasieran benediktarren monastegia, 1176an Pedro de Paris Iruñeko apezpi-kuak abadía fundatu zuen. Bertan sartu ziren bernaditarak 1835ra arte, desamortizazioa izan arte, hain zuzen ere. 1945an Bianako Printzea era-

kundeak eraikina berritu eta Teatinarrak sartu ziren, gaur arte. Ibilbidetik aparte samar dago, baina merezi du hurbiltzeak.

Gero Abartzutatik Larraitzara daraman bidea hartu behar dugu berriro, eta malda jeitsita, behean ikusten den Abartzuzara berriro heldu arte. Herri honetan izan zen karlistadaren gerra sonatuenetakoa, 1874ko uztai-lean, eta bertan hil zen liberalen Concha jenerala.

ERAKUSKETAK

Jaientzako kartelen erakusketa egongo da Noainen irailaren 10era arte. Erakusketa Kultur Etxean egongo da ikusgai.

Carles Planell pintorearen erakusketa zabalik dago Iruñeko Aurrezki Kutxa Muzikipalak Gotorlekuan duen aretoan. Artista honen lanak irailaren 26a arte izanen dira ikusgai arratsaldeko 19.30etatik 21.00etara lan egunetan.

'Iruña Artista Gazteak' izeneko erakusketa zabalik dago Iruñean, Gotorlekuko armen aretoan, irailaren 12a arte. Bertan, Jose Angel Aierra, Fernando Garcia Ezpeleta eta Itziar Alforja artisten lanak ikus daitezke, arratsaldeko 18.00etatik 20.00etara bitartean.

ANTZERKIA

'Historia de una muñeca abandonada' izenburuko antzezlan aurkeztuko du asteburu honetan Iruña Pequeño Teatro taldeak. Larunbat eta igandean plazaratuko dute, Elgorriaga eta Unanu herrietan, gaueko 22.00etatik aurrera. Bihar Elgorriagan izanen da.

'Kiki, Koko eta Moko' izeneko lana eskainiko du gaur, irailak 3, Azkona antzerki taldeak Azagran. Emanaldia udal igerilekuan izanen da, arratsaldeko zazpietan. Asteazkenean, berriro, Zizur Nagusian izanen dira Azkona taldekoak, obra bera eskaintzeko Kioskoaren enparantzan.

ZINEMA

'Victor o Victoria' izenburuko pelikula izanen da ikusgai asteburu honetan Elgorriaga eta Unanu herrietan, gaueko 22.00etatik aurrera.

MUSIKA

Benito Lertxundi abeslariaren kontzertua izanen da gaur ostirala, irailak 3, Zizur Nagusiko polikiroldegian. 'Errondako Kontzertuak' zikloaren barruan.

Su ta Gar musika taldearen kontzertua izanen da gaur ostirala, irailak 3, Lesakako 'Atxaspi' tabernan. Musika emanaldia gaueko 10.00etan hasiko da.

AHAZTU GABE!

ZINEMA kanpoan ikusteko aukera izanen da datorren astean Lizarran, herriko Paseo de los Llanos delakoan. Honekin batera, hilabete honetan zeregin gehiago izanen dute lizaraldekoek, Musika Zahararren astea, erakusketa bat eta astronomiaren ikastaro bat antolatu baitu udalak iraile-rako.

Zinema kanpoan izeneko zikloa heldu den astelehenean hasiko da, irailak 6, gaueko 10.00etan, eta osteguna arte eskainiko dituzte pelikula ezberdinak. 'Solo en casa I' izanen da lehen filmea, astelehen gauean botako dutena. Asteartean, 'Le llaman Bodhi' izeneko pelikula, asteazkenean, irailak 8, 'Mira quien habla tambien', eta azken egunean, ostegunean, 'Asesinato en Beverly Hills' izenburukoa. Zer esanik ez, sarrera dohainik izanen da, eta eguraldi ona eginez gero, ekitaldi interesgarria izanen da.

Era berean, eta Musika Zahararren astea amaitu eta gero, Fray Diego Kultur Etxean erakusketa bat izanen da ikusgai, Tuterako pintura ezberdinak hain zuzen. Hilabetearen amaieran astronomiaren ikastaroa hasiko da, Kultur Etxean hau ere.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Ostegunero, arratsaldeko 4etan, **30 seme-alaba Nafarroako**. Elkarriketak.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteaz 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarriketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteaz 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

EMAKUMEEN

arazoei buruz mintzatuko da bihar larunbata, irailak 4, Agoizko Jone Cosein soziologa, Irati irrati-ko saio berezi batean. Goiz osoa iraunen du saio honek, eta bertan, beste elkarriketa eta laburpen batzuren artean, soziologa honek egin dituen ikerketak azalduko ditu. Era berean, eta hilaren 12an Aezkoako Eguna denez, jaiaren arduradunarekin ere hitz egingo dute kazetariak, egunaren berri eman dezaten.

ASTEKO PERTSONAIK



Jazek Ziober
Futbolaria

Jazek Ziober futbolari poloniarak aste honetan sinatu du kontratua Osasuna taldearekin, datozen hiru denboraldiak Iruñean jokatzeko asmoz. Azken egun hauetan gaiarekin hitz asko esan badira ere, kontratua asteazkenean sinatu zen, Frantziako Montpellier hirian, bertako futbol taldeko jokalaria baitzen Ziober. Berarekin hiru dira Osasunak aurtien dituen poloniarak, Urban eta Staniek jokalariekin batera. Ziober Koseckiren hutsunea betetzeko ekarri dute, eta batzuk aurreratu dutenez, oso aurrelari trebea da mutila. Osasunari 121 milioi pezeta kostatu zaio fitxaketa, eta dagoeneko 67 ordaindu ditu. Angel Bizkai Osasunako gerentea eta Jose Delfin Biurrun lehendakariordea izan ziren talde frantziarrarekin negoziaketak burutu zituztenak.



Itziar Alforja
Margolaria

Iruña, artista gazteak' izeneko erakusketa zabaldu da aste honetan herrialdeko hiriburuan, iaz izen bereko lehiaketa irabazi zutenen lanak ikusgai direlarik. Itziar Alforja iruindarrarekin batera, Jose Angel Aierra eta Fernando Garcia Ezpeleta dira artistak, artearen hiru mota ezberdinak erakutsiz: pintura, argazkilaritza eta eskultura, hain zuzen. Alforja gaztearentzat aukera hau ona da bakoitzaren lana kaleratzeko, baina, hala ere, «azkenean zurekin nahi dutena» egiten dutela adierazi zuen. Hasieraz aldu zen Itziar, erakusketaren data aurreratu dutelako. «Hasieran urrian izango zela esan ziguten, eta gero abuztuan egin da. Jendea oporretan dago oraindik eta askoz ikusle gutxiago hurbilduko dira gure lana ikustera».



Jose Luis Gorostidi
Paz de Zigandako zuzendaria

Paz de Ziganda ikastolak bere egoitza aldatuko du bi urte barru, Jose Luis Gorostidi zuzendariak azaldu zuenez. «gauzak ongi ateratzen badira behintzat». Azkeneko 20 urteak Dominicoen etxe batean pasatu dituzte, Atarrabian, baina orain, herriko udalak Hirigintza Egitasmoa burutzeko asmoa dute, eta egitasmo horren arabera, ikastola dagoen tokitik kale bat pasatuko da. Gauzak horrela, ikastolakoek zentru berri bat eraikiko dute. Burlata eta Atarrabiaren arteko lur zati bat erosi zuten, eta orain proiektu berriaren fase administratiboa amaitu berria dute. «Nafarroako Gobernuaren adostasuna falta da bakarrik, eta horretan ez dugu uste arazoak izango ditugunik». Osotara, 900 milioi pezetako aurrekontua du proiektu berriak, eta hiru fasetan egingen dute.



HERRIZ BERRI



Bera

Euskalerriko Akuarelistak Urruñan

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Euskalerriko Akuarelistak izeneko erakusketa zabalik dago Urruñan (Lapurdi) Berako Gure Txokoa Elkarteak antolatutik, Urruñako Lan Ederretako Salaria Tailerrarekin eta Urruñako Udalarekin batera. Bertan Euskal Herriko 40 akuarelista bildu dira lehendabiziko aldiz, bi herrien artean bultzatzen ari den elkar-lanaren barruan. Lehendabiziko adibidea aurten bertan antolatu zen Uda-berri izeneko pintura erakusketarekin, eta helburua mugaz bi aldeetako artisten elkar ezagutza bultzatzea da, topaketa hauek tradizio bihurtzeko.

Erakusketa abuztuaren 20an zabaldu zen Pusta aretoan, eta heldu den irailaren 5era arte, hau da heldu den igandera arte, izanen da zabalik. Ordutegia arratsaldeko 3etatik 7etara da, eta, beraz, euskal akuarelisten lana lehendabiziko aldiz bildurik ikusteko aukera ezin aproposagoa dute hara hurbildu nahi dutenek.

Zerrenda luzea da oso, eta bertan daude, bereziki Iparraldeko artistak, baina baita nafar



Erakusketak harrera ona izan du Urruñan.

LUZIAN ETXEHARRETA

batzuk ere. Kontuan harturik hau izan dela mota honetako lehendabiziko erakusketa, eta horretan jarraitzeko asmo franko daudenez, hurrengo urteetan gehiago animatuko dira, hain segur.

Ondorengoak dira lanak paratu dituztenak: Donibane Garaziko Abo, Urruñako Myriam

Aniolbehere, Ziburuko Aouston, Abrisketa donostiarra, Angeluko Arroza Kanblog, Bioy hazpandarra, Bergez getariarra, Kanboko Etxeberri, Ziburuko Etxenay, Donibane-Lohizuneko Estheramound-Saulet, Soustongo Gourdon, Donibane Garaziko Gutierrez, Gorostidi elizondoa-

rra, Gelos baionesa, Hoidobra eta Lafargue angeluarrak, Semelin hendaiarra, Matilde Miranda donostiarra, Planchon urruñarra, Paxkalin eta Rubio baionesak, Ziburuko Pialoux, Pablos beratarra, Simonet Arroyo gasteiztarra, Trini Goienetxe, Kurtiz-Urtizberea eta Soubelet.



FITEROko Monastegiaren Adiskideak Elkarteak San Raimundo abatea omenduko du asteburu honetan egingo den egitarauaren barruan. Calatrava eta Montesa ordenek antolatuta, aurretik Palafox eta Becquerrekin egin zen bezala, Fiteroko pertsonai ospetsuaren —Calatravaren ordenaren fundatzailea bera— omenezko meza, erakusketak eta mintzaldiak izanen dira. Egitaraua bihar larunbata hasiko da, arratsaldeko 6etan, San Raimundori buruz egingo den mahainguruarekin. Ondoren zabalduko da erakusketa eta igandean meza izango da Calatrava ordenaren agintari nagusiaren presentziarekin. Erakusketa izanen da interesgarrietakoa.

ATARRABIAko Paz de Ziganda ikastolaren lur sailen birkalkifikazioa erabaki zuen udalak pasa den astean, eta horrekin Burlata eta Atarrabia bitarteko ikastola berriarendako azken oztupoa gainditu. Ikastola berriak 25.000 m²ko zabalera izanen du, eta aurrekontua 900 milioi pezetako aurrekontua dauka.



FESTAZ FESTA

IHABAR

Ostirala, 3:

19.00etan Txupinazoa eta karameloak. Kalejira trikitiaz.
22.00etan Herri afaria
24.00etatik 4.30etara Dantzaldia 'Tiburón' taldearekin.
4.30etan Ihabarko ingurutxoak.

Larunbata, 4:

10.00etan Baratxuri xigorkiak Teodororen etxean.
13.00etan Argazki zaharren erakusketa eta auzatea trikitiaz alaiturik.
17.00etan Pilota partiduak.
20.30etatik 4.00etara Dantzaldia 'Drindots' taldearekin.
4.00etan Ihabarko ingurutxoak.

Igandea, 5:

13.00etan Auzatea eta Herri kirola trikitiaz lagunduta.
17.00etan Herriko Mus Txapelketa.
18.00etan Dantzak: Orritz taldea-Ihabarko ingurutxoak.
20.00etatik 3.00etara Dantzaldia 'Iruña Band' taldearekin.
1.30etan Korrokada kontzertua.
3.00etan Ihabarko ingurutxoak.

IRUNBERRI

Ostirala, 3:

9.00etan Dianak.
11.00etan Txupinazoa haur udalarekin.
11.30etan Meza eta segizioa buru-haundi, musika banda eta gaiteroekin.
14.00etan Txaranga.
18.30etan Entzierroa.
20.30etan Txaranga.
22.00etan Zezensuzkoa eta Larrain Dantza.
24.00etan Berbera 'Scala 2000' tal-



dearekin.

Larunbata, 4:

9.00etan Dianak
12.00etan Buruhaundi eta kilikiekin desfilea.
14.00etan Txaranga.
15.00etan Herri bazkaria frontoian.
18.30etan Entzierroa.
20.00etan Baztan eta Otsagiko Dantzarien emanaldia.
22.00etan Zezensuzkoa eta Larrain Dantza.
24.00etatik 4.00etara Berbera Plaza Nagusian.

Igandea, 5:

9.00etan Dianak.
12.00etan Eskualdeko agintarietako harrera ofiziala.
12.30etan Zangozako Jota Eskolaren emanaldia.
13.30etan Kiliki eta Buruhaundiekin desfilea.
18.30etan Pilota partiduak.
20.30etan Txaranga.
22.00etan Zezensuzkoa.
24.00etan 'Pobre de Mi'

BERRIOZAR

Ostirala, 3:

9.00etan Dianak.

11.30etan Erraldoi eta kiliki konpartsa.
17.00etatik 20.00etara Betizuak Osasun Etxearen ondoan.
16.00etan Lau peñen bazkalondoa Zulo Alai Elkarteak.
16.30etan I. Iristaketa Txapelketa.
18.00etan Peñen kalejira-poteoa.
20.00etatik 22.00etara Dantzaldia 'Jator' orkestrarekin.
24.00etan Rock kontzertua herriko taldeekin.
00.30etan Dantzaldia 'Jator' orkestrarekin.

Larunbata, 4:

9.00etan Dianak.
10.30etan Askaria Berriozarko Taldea Peñarekin.
12.30etan Haur jolasak Eguzki Enparantzan.
14.30etan Herri bazkaria Doneztebe plazan.
17.00etatik 20.00etara Betizuak Osasun Etxearen ondoan.
18.00etan Herri Kirola Ilargi Parkean.
20.00etatik 22.00etara Dantzaldia Scala 2000 taldearekin.
22.15etan Zezensuzkoa.
5.00etan Kukaña Errekalde kalean.

Igandea, 5:

7.00etan Auroak.
9.00etan Dianak
11.30etan Erraldoi konpartsen kontzertazioak.
14.00etan Kaldereteak.
18.00etan Jota jaialdia, Eguzki Enparantzan.
22.00etan Dantzak gaiteroekin.
23.00etatik 2.00etara Dantzaldia 'Drindots' taldearekin.

BERRIOZARko Eguzki plazaren jabeek festak direla eta bertan antolatzeak diren berbenak eragozteko erabaki zuten astelehenean, luzetik datorren arazoa kopontzeko alkateak egindako eskaerari muzin egiterakoan. Alkateak plazaren lanen aurrekontuaren % 50 ordaintzea proposatu zien garajeen jabeek, baina hauen ustez, «irudia garbitzeko» ahalegina besterik ez da eskaintza. Beraz, berbenak egiten ez uztea erabaki zuten jabeek. Hauen usteetan, alkateak «ez dauka sinesgarritasunik, aurretik antzeko eskaintzak egin dituelako, eta gero ez du bete». Garajeen jabeek ere beste tokiak proposatu zituzten berbenak egiteko, baina udalak soilik Eguzki enparantza ikusi zuen egokia.

AGOIZko Eskualdeko Eskola Publikoaren ikasleen gurasoek beren protesta azaldu dute D eredua ikaslearen Nafarroako Gobernuan egin nahi duen murrizketaren aurrean. Murrizketa honek bereziki ikutuko ditu BBBkoak eta bi mailak batzeko asmoaren kontra azaldu ziren. Nafarroako Gobernuaren ikuskariaren arabera, irakaskuntzak ez du zertan txartu beharrik, «ez bada irakaslearen ahalmen faltarengatik».

Duela 25 urte jada egin zuen lehen-dabiziko bidaia Izabara, Bonaparteren mapa eta erronkariaren berri izan zuenean. Hasieran jakinmina hutsa zeña Nafarroan egin den bilketa handienetako bihurtu zen, 25 urte haue-tan Erronkari eta Zaraitzuko azken euskaldunen testigantza jaso ezezik, hizkuntza galtzeaz zuten hainbat herriren ordezkariekin aritu baita Koldo Artola donostiarrak, nekaezin. Bere lanaren zati handi bat bildu zen Arantzadi Elkartek ateratako atlas etnolinguistikoa, baina ondoren material handia jaso du kurritu dituen herri guztietan, ia beti mugetan.

Egun Euskaltzaindia beste atlas bat prestatzen ari da, baina egitasmoak daukan zailtasuna dela eta —3.000 galdera inguru egin zaizkio 145 herritako hiztun bakoitzari—, luzerako dela ezin uka. Bitartean, Koldo Artolak edo bere ondorengoek —Iñaki Gaminde, Kike Diez de Ultzurrun— jasotakoarekin konformatu beharko. Ez baita gutxi.



Koldo Artola, Donostiako bere etxean.

ANDER GILLENEA

Euskaldun galduaren bila

A. BARANDIARAN / DONOSTIA

Arrazoiak anitz dira, eta ez beti ezagunak. Baina mendetan zehar Lingua Navarrorum izan ondoren, euskara gibelatze prozesu bizian murgildu zen. Marea bat bezala, hiztunek eta herriek ezezik ibar eta bailara osoek ere galdu zuten sustraia atxikituta zutena. Gelditu ziren ondarrak —izkribuak, lekukotasunak, toponimia...— gogoratzeko digute horren aberastasuna eta erreallitatea, eta euskararen galeraren mapa marrazten dute garbi.

Prozesua, esan bezala, oso bizkorra izan da azken mende haue-tan, eta are bizkorragoa XX.ean, gizarteak eta kulturak izan dituzten aldaketekin. Goñibar, Erronkari, Zaraitzu, besteak beste, galdu dira euskararako. Marea beltz honetan gelditu ziren irla txiki batzuk, lekuko bakar-tiak, azken hiztunak, batzuetan euskalki oso baten hondarrekoak. Eta horien atzetik ibili da azken 25 urteetan Koldo Artola donostiarrak, handik eta hemendik, beti ere mugetan. Berak jaso zuen Antonia Anaut izabarraren testigantzarik handiena, eta berarekin solasaldi ederrak izan zituen Fidela Bernat uzta-rotzar-rrak. Patxi Gonzalez de Mendigutxia ziordiarrekin eman zituen ordu franko, eta baita Ignacio Larraia ziaurritarra, Juan Ibero zigandarra, Urbana Aginaga usitarra, Juan Bautista Etxarren urritzolarra, Apolinaria Egozkue inbuluzketarra Dionisia Garate espartzarra edo Saturnino Etxamendi arrietarra. Mugetako euskaldunak. Gehienak azkenak

edo bakarrik. Denak beraiekin batera galtzen zen ondarearen jabeak.

«Lehenago joan ahal izan bagina!» dio Koldo Pastorek mugetako atxikimenduz galdetzen zaionean. «Zerbait joaten zitzagula konturatzen ginen, eta ez baginen orduan azaldu, gerta zitekeen hurrengo urtean ez izatea. Orduan zen garaia». 1968 aldera hasi zen Nafarroako hiztunen eskuekin, Donostia bere herrian mendi taldea osatu zenean. Orduan izan

zuten Bonaparteko maparen berri eta erronkariari buruzko testu bat irakurri bezain laister, haruntza abiatzea deliberatu zuten. «Egun batean, bi autotan Izabara abiatu ginen. Bertan zenbait zahar ezagutu genuen eta beraiekin izan genuen lehen harremana». Ez zen ezerezean gelditu hasierako jakinminak, eta hau interes bihurtu zen Artolaren. Aditza hutsa biltze lana. Antonia Anauti bildu eta aditutakoa itxuratu eta 'Fontes Lingua Vasconum' al-

dizkarian argitaratu zioten. «Primerran zekien mintzatzen, baina artean nere lehendabiziko urteak ziren —1971tik 1975era—. Gutxi ulertzen nion, liburuetan irakurritakoa bainuen erreferentzia bakarra, eta ez nuen galdetegi zehatzik. Mintzatzearekin nahikoa zen».

Ondoren Fidela Bernat uzta-rotzarrekin hasi zen harremanetan, eta berehala konturatu zen haren zeukan jarioa, nahiz eta Anautek baino gutxiago menderatu euskara. «Segidan egiten zuen euskara, gelditu gabe, baina



Ezkerrean Doroteo de Miguel Bernat. Koldo Artola. Uzta-rotzarren zuten informazioa ko bat. Eskuekin, ikerlaria bera Fidela Bernatekin, 1976an. KOLDO ARTOLA/FERMIN LEIZAOLA

aditza askoz ahaztuagoak ziren. Gainera soilik noka menderatzen zuen. Euskara oihanean zuen ikasia, ama eta izebarekin, eta gu han ginela, grabatzen, 'har-tzan pasta bat' eta antzeko esaldiak botatzen zizkigun, naturaltasun osoz gainera. Bere lanik ezagunena hori izan bazen ere, ez zen horretan amaitu. Otsagira ere hurbildu zen hiztunen euskara-egarrak, baina beranduegi heldu zela dio. «Izugarria da nola aldatu den egoera hogei urtetan. Orduan zahar multzo bat erraz moldatzen zen, baina gaur egun denak dorpeturik daude, eta inork ez du menderatzen».

1978an Aranzadi Zientzi Elkartea atlas etnolinguistikoa osatu nahian zebilela, Fermin Leizaola proiektuaren koordinatzailea hurbildu zitzaion, Uzta-rotzeko Bernati galdetegi egin behar ziola esanez. Berari ezezik beste hamar laguni ere egin zien galdetegi, denak muturrekoak. «Hegoaldeko goi-nafarrera, adibidez, iruditzen zitzaion ez zela oso berezia, baina gero konturatu nintzen azkenetan egoteak ere justifikatzen zuela gauzak biltzea». Inbuluzketa, Anotz, Arrieta, Usi, Mezkitzen, ia inguruko herri guztietan aritu zen, galbahearen lana egiten, gelditua zen bikorren bila. Baina egin-dako 190 inkesta guztien artean 80 aukeratu ziren, euskalki eta erreallitate guztiak hobekien isladatzen zutenak.


Ondoren, Pedro Irizar azkoi-tarra aditzaren morfologia euskalkiz euskalki zehazteko egiten ari zen lana ezagutu eta zenbait ohar igorri zizkion. Harek interesgarritzat jo eta bere lanerako beste galdetegi mota batzuk egiten hasi zen. «Gaur arte. Ezagu-

Dagoeneko eroririk dagoen Gurbitzako hiztun bat aurkitu nuen Erron. Kasu horretan euskarak herriak baino gehiago iraun zuen».

franko izango nituela toki haie-tatik, eta apenas ezer ez oraindik bizirik zegoen eremuetatik. Hori ere ez zen oso logikoa, eta ondo-ren Arantz, Larraun, Baztanen, eta egun Lapurdin ari naiz».

Hizkuntzaren egoera tamal-garrien den tokietan aritzeak, baina, ez dio horrelako ondoezik sortu, eta bai ordea, frankotan, poz handia. «Toki horietara joa-ten zarenean badakizu zein den egoera, eta mentalizatuta ager-tzen zara. Ordea, norbait topatzen baduzu izugarritzako poza da. Adibidez, dagoeneko eroririk dagoen Gurbitzako herriko hiztun bat aurkitu nuen Erron, eta txiki-tatik ikasitako forma guztiak gordetzen zituen. Kasu horretan euskarak herriak berak baino ge-hiago iraun zuen».

Urte guzti hauetan ez du bitxi-kerien falta izan Koldo Artolak, eta bereziki gogoratzen ditu Zaraitzun eta Erronkari aldean bizi-takoak. «Saiatu nintzen haien arteko harremanak azaleratzen, eta denetarik aditzen nuen. Adibidez Espartzakoez esaten zuten Erronkarietako beti erdaraz egiten zutela, baina Eiaurrietako emakume batek duela gutxi esan zidan Donibane-Garazikoekin ez zuela batere arazorik ulertzeko. Fidela Bernat ere, bere garaian, askotan joaten zen Maulera, espartinak egitera, eta haiekin euskaraz egiten zuen galdetzerakoan han denek 'espainolez' egiten zutela esan zidan. Harriturik utzi ninduen».



Oraindik argitaratu gabe daukan guztia auzaltzea da bere helburua.

ANDER GILLENEA

Euskaltzaindiaren atlasa, atzeratuta

A.B. / IRUÑA

Koldo Artola eta berarekin ba-tera duela urte franko zaharren-gana, grabagailua eskuetan zu-tela, jo zutenen lanaz aparte, Euskaltzaindia azken urteotan bere atlasa burutzen ari da, egi-leen ustetan «garai bat» marka-tuko duena. Dagoeneko inkesta guztiak egiten eta transkribatu-rik, lehen alea 1995erako atera-tzeko asmoa zuen erakundeak, baina krisia dela eta atzeratu egingo dela baieztatu du Gotzon Aurrekoetxea egitasmoaren ar-duradunak.

Proiektu erraldoi honen bidez, Europako beste hizkuntzetan ohizkoa den atlasa tajutzea da helburua, eta horretarako 145 inkesta egin ziren Euskal Herri osoan zehar, horietatik 27 Nafa-roan: Urdiain, Arbizu, Dorrao, Gaintza, Leizua, Etxarri-Larraun, Oderitz, Goizueta, Ezkurra, Be-ructe, Igoa, Etxaleku, Suarbe,

Sunbilla, Donamaria, Etxalar, Alkotz, Aniz, Lakaroz, Zugarra-murdi, Eugi, Erratzu, Zilbeti, Mezkitz, Luzaide, Abaurregai-na eta Eaurtan. Herri bakoitzean ia 3.000 galdera egin dira, eta oro har, 30 orduko grabazioa zai-o bildu inkesta egin zaion hiztun bakoitzari.

Galdetegi egiteko atlas hauetan ohizkoa den era erabili izan da. Definizio, perifrasi eta abar, argazki eta marrazkien bi-dez eskatu zai-o hiztunari; lexi-koari buruzko galderak, ahoz eta euskaraz egin dira, eta gramati-kari dagozkionak —izen morfo-logia, fonologia, eta abar—, er-daraz. Herriak aukeratzeko sare batekin zen hasieran, eta, teoriar, hizkuntza bizirik zutenak soilik erabiliko ziren. «Hala ere», azal-tzen du Aurrekoetxea, «ikusit genituen toki batzuk oso interes-garriak Nafarroan, eta nahiz eta bertan euskara galdurik izan sar-tu egin genituen. Adibidez, Mez-

kiritz, Ureta...».

Bost aletan banatuko da lana, baina kontuan harturik bildu den material izugarri aberatsa, aleak bikoitzak izango dira. Osorik bu-katuta egoteko 2008. urtea aipatu izan da orain arte, baina amaiera data hori atzeratu egingo da gaur egungo arazo ekonomikoak di-rela bide. «Egun bost pertsona ari gara egun osoz lanean, eta aurren bete bi espero genituen. Hala ere, ez da posible izan, eta lehenda-biziko alea 1995erako atera nahi bagenuen ere, atzeratu egingo da».

Lanaren garrantzia «izuga-ria» izango dela dio euskaltzain urgazleak, eta Azkuek egindako bilketarekin parekatzen du lana. «Hala ere, bere lanean aurriritzi asko sartu zituen Azkuek, eta al-datu egin zituen gauza batzuk. Guk ez dugu aurriritzirik. Baka-rrik ahozko euskararen erreali-tatea isladatuko dugu. Hori bai, definitiboa izango da».

Gazteendako Zokoa



XAKEAN



Nafarroako Taldekako xake txapelketaren 9. jardunaldiko partida, 1992ko abenduaren 12an jokatu.

Ricardo Zuza (Lizarrako Alekhine)
Luis Antonio del Rioren (Oberena 'A') aurka.

1. d4, f5; 2. Ag5, h6; 3. Ah4, g5; 4. Ag3, Zf6.

Beltzek 'f4' jokatu izan balute, 5. e3, Zf6 (matea galerazteko); 6. f4, f4; 7. Af4. Peoi bat irabaziko lukete txuriek.

5. e3, d6; 6. Ae2, Ae6.

Beharrezkoa izan da. Baina erregearen peoiaren garapena moztuta geratzen da. Honek erakusten du beste peoiak ardura gabe aurrera joan zirela.

7. Zc3, c6; 8. h4, Gg8; 9. g5, g5; 10. f4, g4.

Joko ziurra aukeratu dute. Bestela 10...f4; 11. Af4, Gg2; 12. Zf6, Gg8; 13. Zg5. Txuriek edukiko lukete erasorako parada. Batzutan, peoi bat jaterik dagoen jakiteak azterketa oso sakona eskatzen du. Intuizioa ere beharrezkoa da. Kasu honetan, posizioa ez irekitzea nahiago izan dute beltzek.

11. Ad3, bZ-d7; 12. gZ-e2, Da5; 13. Dd2, 0-0-0; 14. a3, c5; 15. 0-0-0. Ag7; 16. e4, c4. Ikus koadroa. 17. f5. Beste jarraipena: 17. d5, d3; 18. e6, e2; 19. d7 xa, Ed7; 20. De2. Txuriek hobetoxeago geratuko lirakeke. Baina hanka sartu zuten. 17...Af7; 18. Ae4, d5; 19. Zd5, Dd2 xa. 20. Gd2, Ad5; 21. Ad5, Zd5; 22. Zc3, Zf-f6; 23. Ge2, Zc3; 24. c3, Zd5; 25. Gh7, Af6; 26. Eb2, Gd6; 27. Ge6, Ge6; 28. e6, Ze3; 29. Af2, Zd1 xa.

Zaldia inguratu nahian, alfila izan da harrapatuta. Txuriek amaitutzat eman zuten partida, erraztasun gehiegi eskaini eta gero.

ENARA FERNANDEZ

Ni Kepa nauzue eta 30 urteak beteta ditut. Ezkondua naiz eta gainera hiru seme-alaba ditugu. Oso bihurriak dira. Ni txikitzen baino bihurriagoak. Hauetako bi mutilak ditugu eta azkenekoa neska. Hau oso lasaia da, baina mutlak, beno ez dut hitzegi nahi, negargura sortzen zait eta. Asko maite arren, hauen jokaerak batzutan nerretzat ulergaitzak dira. Era-kunde baten bulegotxoan lan egiten dut. Honek esan nahi du ez dela lan neketsua. Ana nere emaztea andereñoa da, oso lan polita gainera. Baserri bat dugu, baina ez dugu ez animalirik ez baratzarik. Baserri gehiago dago ondoan baina herriak hurbil dago, hala ere. Irunen dago. Herri polita benetan.

Hondarrabira joateko, Irundik atera gara. Amaren urtebetetzea denez hemen bildu gara familia osoa. Jende asko izan arren, denok sartzen gara etxean. Amaren etxea, hain da haundia, erregearen etxea dirudiela. 60 kandelatxo betetako pastela oparituko diogu, 60 urte betetzen dituelako. Denok elkar ikustea oparirik hoberena dela jakin arren, opari asko jasoko ditu, kolonia, zapiak, zapatilak... Bana-bana heldu garen arren, denak heldu gara. Bina musu eman ondoren bazkaltzen eseri gara. Tristezia sortu zaio eta begiko perla urdinak negarrez hasi dira, 'Zorionak' abestu diogunean. Mahaia izebaz, lehengusuz, ilobaz, anaiatz, arrebaz eta abarrez beteta dago.

Mahaiaren ertzean, izeba Mari-txu eta osaba Joxe daude. Ezkon-duta egon arren, ez dute seme-alabarik. Hala ere, oso gustura bizi dira Donostiako beren etxetxoan. Nere ahizpa Karmele hauen ondoan dago. Ezkondu egin da eta bi semetxo eduki ditu. Bere ondoan bere senarra dago. Bere zaletasuna futbola izan arren, medikua da. Honen familia okina da. Honek esan nahi du dirutza handia dutela.

Ama ondorengo da, gaixoa alarguna. Hala ere oso pozik bizi da. Ondorengoak Ane eta biok gara. Seme-alaba txikiak ez ditut aipatzen, beste mahai batean daudelako. Gabriel eta Pepi datoz ondoren. Irunen bizi dira. Beraien alabak Miren eta Paula dira. Hurrengo askotarako iraun behar duena da. Amona Josefak 85 urte ditu. Amarekin bizi da, hala ere bere lagunak ditu eta paseatzera joaten da. Hurrengoak eta azkenak, izeba Luisa eta osaba Mikel dira. Hondarribian bizi dira, eta bakarrik, umerik gabe.

Izeba Maritxuk eta osaba Joxek txikitako gauza bat gogorazi dute. Ni txikia nintzenean osaba hauek baserri bat eta bi zaldi zituztela gogoratzen dut. Nere gurasoei osaba hauen etxera joatea bururatu zitzaion, oso ixila eta amakioia nintzelako. Ni oso ados ez egon arren, baietz esan nuen eta osabak eta izebak ere bai. Maletak egin eta gero Irunen zegoen base-

rrira abiatu ginen. Osaba hauen baserria, gu bizi garen baserria da. Guk eredatu genuen. Etxean mutil bat zegoela konturatu nintzen. Nire urteak zituen eta ni bezala ile-horia zen. Lagunak ginela iruditu zitzaion egun hartan. Ez zen Irungoa, Bilbokoa baizik. Mutil hau, Joxek zituen lagun batzuen semea zen. Zaldi gainean ibili ginen hurrengo egunean. Profesioanalak ematen genuen. Haizea bezala, bere ilea mugitzen zen. Urrea zirudien. Egin genuena, jolastu, hitzegi, bainatu, zaldi gainean ibili, eta abar... Alde egin beharra genuenean oso oso lagunak ginen. Triste geunden, oso ondo pasa genuela jakin arren. Etxera heldu nintzenean, beste bat ematen nuen, ez nintzen ixila, alderantziz, ixiltzeko esan behar zuten. Amari ikusgarria iruditu zitzaion nik eman nuen al-daketa.

Izeba Pepik hitzegi nahi du:

—Karmele eta Kepa txiki txikiak zirenean, oraindik gogoratzen dut, eta hain handiak egin behar zutenik nork pentsatu behar zuen.

—Arrazoia ematen dizut —osaba Mikel— Londresera joan nintzenean, goxokiak ekarri nizkien, eta oso pozik jarri ziren, Gainera hoberena sinestu zutela da.

—Nik ere gogora dezaket —izeba Pepik— hain pozik jarri ziren, beren lagun guztiei esan zutelako.

—Baina begira izeaiozue zein handiak egin ziren. Baietz?

—Bai, ez duzu esan beharrik— amak.



KAZKARROAN

E K B R F I H A X M O A
O R E D A U G O J E R D
H E R L I X F A B T K N
U T N A Z A Z E P E Z A
G E I U N T A M I X E L
K G L A R D Z R I T A U
D I X A E U O F H E B I
J E L A N D I N A R E D
M A P F A A G I E R O M
G K B I G U E H K A J A
U O A R O H Z F A E G I
G A N B E L O K I B A F

LETRA
ZOPA

Aurki itzazu letra zopa honetan 6 nafar pilotari handiren izenak. Izen hauek ezker eskuin, eskuin esker, goitik behera, behetik gora eta diagonalean irakurrita agertuko zaizkizu.

Jenero Xumekoak

Kupido jauna, gupidatu

Zahar-zaharra nauzu, amodioa. Ez abarrikatu, ez izorratu nire zahartzaroa. Hor duzu Petreneko jabea, txilintxa jotzale sutua. Halako neska ederra niregana igortzea ere. Dena den, mila esker, Amodioa, hobe da berandu sekula sekulorum baino.

JEREMIAS ERRO

N-90



Sakana (I)

Izen ezagun honen gainean ari- tuko naiz ondorengo le- rroetan. Arazorik gabeko izena dirudien arren laster aza- leratzen dira puntu ilunak. Le- hendabizikoa, nondik nora za- baltzen da Sakana? eta bigarrena, nola eta noiz sortu da izen hau?

Bi galdera horiei erantzuna emateko honako pausu hauek emanen ditut: Aurrena, ikustea zein izan den eskualde hau iden- tifikatzeko erabili den izena. Bi- garrena, aztertzea gaurko plano eta liburuetan zertaz bailatzen diren geografoak eta azkenik ize- naren jatorrian arakatuko dugu.

La Barundesa autobus fama- tua harturik Ziorditik Izurdiaga- rainoko tartean eskualde homo- geneo bat zeharkatzen ari gare- lako sentsazioa izanen dugu. Arabako zelaia utzita eta Iruñe- rrira sartu bitartean mendiek es- tutzen dute bidea eta oihanek oso lurralde meharra uzten diete soro, alor eta euntzei. Gainera Araban eta Iruñerrian ez bezala, bailara honetan belarrak agintzen du gari eta garagarak zokoratuz. Beraz guziz normala irudituko zaigu eskualde luze hai izendatuko duen toponimo bat izatea, *Saka- na* hain zuzen ere. Baina paper zaharretan murgilduko bagina oso berandu arte ez genuke aur- kituko funtzio hori bete duen ize- nik. XIX. mendera arte ez omen sentitu izen bakar baten beharra eta gure zonalde hiru lurralde historikotan banatua azaltzen da beti: Burunda, Arañatz edo Ara- natz eta Arakil.

Burunda mendebaldko es- kualdea da eta Ziordia, Olazti, Altsasu, Urdiain, Iturmendi eta Bakaiku herriek osatzen dute. XIX. mendean udalerri bakarra zena gaur ezagutzen ditugun seietan sakabanatu zen.

*Arañatz*ko komunitateak 1882 arte iraun zuen arren gaur egun oso jende gutxi ezagutzen du. Etxarri-Arañatz, Lizarragaben- goa, Arbizu eta Ergoingo hiru herriek (Dorao, Unanu eta Liza- rraga) osatzen dute eskualde hau.

Arakil ekialdeko eskualde da eta makina bat herri osatzen du- te. Lakuntza, Arruazu, Uharte- Arakil, Irañeta eta Arakil Hara- neko hamahiru herriek (Izurdiaga, Errotz, Aizkorbe, Irurtzun, Etxeberri, Etxarren, Urritzola, Ekai, Zuhatzu, Satrustegi, Hiri- berri, Ithabar eta Murginduetza) osatzen dute.

Hiruetatik *Burunda* eta *Arakil* izenak dira erabilienak. Esate ba- terako gaur egun Arakil ibaia esaten zaio Ziorditik Iberoraino doan ugaldari baina Burundan *Burunda* ibaia darabilte.

MIKEL BELASKO

Bizi Bizian

Osasun Saileko Medikuntza Zentro eta Ekintzen Ikerketarako Zerbitzuak txosten bat argitaratu du medikuntza alternatibo edo naturistei buruz. Txosten horren arabera, Nafarroa osoan 200 pertsona inguru aritzen dira hauetan eta eurengana jotzen duen jendea ere ugaria da, bai sinesmenez, bai askorentzat azken aukera direlako. Akupuntura, kiropraktika, dietetika, iridiologia, geoterapia... dira erabiltzen dituen teknikak.

Zientzia ala sinesmena?

EDURNE ELIZONDO / IRUNEA

Ohizko medikuntza eta naturistaren arteko lehia eta eztabaida ez dira oraingo gauza, ez horixe. Bataren eta bestearen aldekoak egon dira beti eta oraindik ere badaude. Nafarroan ere medikuntza alternatibo edo naturistak jarraitzaile ugari ditu eta hau argi eta garbi utzi du Osasun Saileko Medikuntza Zentro eta Ekintzen Ikerketarako Zerbitzuak argitaratu duen txostenak. Jose Maria Roig Aldasorok zuzentzen duen zerbitzu horren datuen arabera, Nafarroan 200 lagun inguru aritzen dira medikuntza naturista deiturikoan. Horietatik 70 edo, kiromasaia eta osteopatian aritzen dira, 50 inguruk iridiologia, naturopatia eta dietetika arloko kontsulta dute eta beste hainbeste akupunturaren eremuan egiten dute lan. Gainera, hauetaz gain badira argaltzeko dietak eta antzeko zerbitzuak eskaintzen dituzten 50 edo 60 edertasun areto.

Sendagile naturista hauengana arrazoi askorengatik jotzen du. Jendeak, sinesmen filosofiko eta erlijioengatik adibidez, edo ohizko medikuntzak inolako itxaropenik eskaintzen ez duenean azken aukera direlako. Bestetan ere, osasun zerbitzuaren hutsak direla eta joaten da jendea sendagile hauen-gana, gaixoeikiko tratua txarra delako, sistema oso mantsoa delako eta abar. Bestalde, kontuan hartzekoa da Euskal Herrian betidanik medikuntza naturistekiko izan den zaletasuna. Gaur egun, ohitura horrek zutik dirau eta antza denez, amona zaharrek hamaika belarrez egiten zituzten botika haiek ez ditu jendeak guztiz ahaztu.

Hala ere, Osasun Sailak argitaratutako txostenak azpimarratzen du medikuntza naturistak arriskurik ere baduela. Diabetea daukaten gaixoen kasuan, adibidez, sendagileak jarritako tratamenduaren ordez dieta vegetarianoa egiteagatik badira ospitalera eraman behar izan dituztenak. Askotan ere, erabilitako tresneria behar bezain garbia ez egoteagatik infekzioak izan dituzte hainbat gaixok. Ikuspuntu psikologikotik ere arazoak sor daitezke; gaixok sendatuko zela

uste izan ondoren, adibidez, gertatu ez bada. Gainera, ohizko medikuntzak ezarritako tratamendua uzteagatik, behar bezain laster sendatu ez den jende asko badago.

Nafarroan medikuntzaren kontrola Osasunaren Lege Foralak arautzen du. Lege honetatik sortzen diren bi dekretu foral daude, 47/1990ekoa eta 213/1993koa. Bi hauek osasun zentro eta zerbitzuen baimena eta beraien publizitatea arautzen dute, medikuntza alternatibo edo naturista barne delarik. Lehenengo dekretuaren arabera, Osasun Sailak eman behar du halako zentroak zabaltzeko baimena eta baimen hau zentroaren garbitasun baldintzak egokiak badira eta bertan lan egiten duten langileak gai badira emango da.

Hala ere, lege arloan ere eztabaidarako lekuri badago, hain zuzen ere, 1992. urtean Espainiako Auzitegi Gorenaren sententzia batek sortutakoa. Horren arabera, medikuak ez direnak medikuntza naturista edo akupunturaren arloan aritzea ezin da bete-beharren lapurretatzat jo, hau gertatzeko oinarritzko baldintza falta baita, hau da, beste lanbide bati dagozkion funtzioak betetzea. Hala nola, akupunturaren

moduko jarduerak medikuntza alternatibo edo naturistari dagozkio eta hau ez da medikuntza fakultatean ikas-tean, ez baita inolako titulurik behar.

Askotan, erabilitako tresneria behar bezain garbi ez izateagatik infekzioak izan ditu hainbat gaixok.

Natura teknikaren oinarria

E.E. /

Medikuntza alternatibo edo naturistaren barruan sail edo mota ezberdinak daude. Hain zuzen ere, ezagunenetarikoa bat akupuntura dela erran daiteke, hau da, orratzen bidez gorputzeko puntu zehatz batzuetan eragiteko teknika. Kiropraktika da bestea, artikulazioetan egiten den masaia; dietetika, mota ezberdinetako dietak egitea; geoterapia, buztina erabiliz sendatzeko tek-

nika; iridiologia, irisaren azterketa; ozonoterapia, ozono bainu edo txertoak hartzea; kromoterapia, sendatzeko bide gisa koloreak erabiltzea; magnetoterapia, eremu magnetikoen bidez sendatzea; landare medikuntza, landareen propietateak erabiliz sendatzea; erreflexologia, oinetan emandako masaien bidez sendatzea, gorputzaren beste ataletan eraginez; eta abar, beti ere bide naturalak oinarri dituztela. Badira ere teknika hauetaz berri



izan eta erabiltzen dituzten osasunaren arloko profesionalak. Hala ere, Osasun Saileko txostenak aditzera ematen duenez, arlo honetan dagoen hutsune legalak mesede handia egin die medikuntza naturista irakasteko zentroei; hauetan ikasleek ez dute inolako titulurik jasotzen eta gehienetan, Osasun Saileko datuen arabera, heziketa oso maila apalekoa da. Dena dela, ukaezina

da medikuntza naturistak Nafarroan duen arrakasta; jende asko sendatu egiten da medikuntza honen laguntzaz, baina beste askok ez du bilatzen zuen emaitza aurkitzen. Hala ere, ziurrenik, gaixok eta eritasunak dauden bitartean beti egongo da bertara joko duen jendea, bai sinesten duelako bai azken aukera duelako.

Gavilan

Abeslaria

«Neguan Inem-era joan beharko dugu»

A. UNANUE / IRUNEA

Bere ama harro egon daiteke, igerilekuan 'Gavilanen ama' bezala ezagutzen baitute dagoeneko. Lehengoan lagunak benetan bere semea al zen galdetu eta, segidan, «aizu, zer gaizki kantatzen du» esan omen zion. «Horregatik dauka meritua», dio abeslariak, «Pavarotti izanez gero, edonork egin lezake». Gaizki kantatzen dutela, mozkortiak direla... denetarik bota dizkiete Huajoloteei, baina denek, bere amaren lagunak barne, aitortzen dute ongi pasatu dutela beren aktuazioetan. Nekez uler zitekeen bestela 'napar-mexaren' erregeek lortutako arrakasta. Udan ez dute atsedenik izan eta negu hurbilak ez ditu izutzen, akaso Inem-era joan beharko badute ere. Hitzak Gavilanenak dira eta koroak Mikel taldeko kitarrajolearenak.

EGUNKARIA.— Zer ekarri dizue lehen diskoak?
MIKEL.— Kristoren astuntasuna, jasangaitza da.
GAVILAN.— Hala da. Sanferminetan ihesi joan nintzen Mexikora, banekien eta bestela Huajoloteez kopeteraino eginda bukatuko nuela. Gasteizen 'Nik ere Huajoloteak gorrotatzen ditut' dioten kamisetak atera dituzte eta ez nau batere harritzen. Gehiegizkoa izan da, baina, hala ere, gure semea denez oraindik maite dugu piska bat, batzutan gaizki portatu arren.

EGUNKARIA.— Udako taldea omen zarete...
MIKEL.— Ez, ez, hamarkadako taldea gara.

Herrietako orkestrek bertsioak egiten dizkigute eta hori diskoa hamaika tabernetan entzutea baino garrantzitsuagoa da».

GAVILAN.— Gogoan dut diskoa kaleratzear zegoela anaiari komentatu niola, aurtengo Sanferminetan Huajoloteak nazkatu arte adituko genituela. «Bai, zera», —erantzun zidan berak—, «urtero gauza bera esaten duzu, baina gero, hau dela edo bestea dela, ez duzue ezer egiten». Nik, berriz, baietz eta baietz: hau ez zela rocka, patxanga hutsa baizik. Jakina, zuzen nengibilen, oportetarik itzuli eta Huajoloteak bazter guztietan aurkitzen nituen eta. Orain Euskal Herritik piska-bat irtetea besterik ez zaigu falta, hemendik kanpo ere jo nahi genuke.

MIKEL.— New York-en, adibidez.

EGUNKARIA.—

Zerbait prestatu duzue jauzi hori emateko?

GAVILAN.— Prestatu prestatu ez, baina badirudi Madrilen eta Bartzelonan ere entzun dela diskoa eta zerbait egin dezakegula. Bistan da hemen harrera ona izan dugula, herrietako jaietan jotzen duten orkestrek bertsioak egiten dizkigute dagoeneko eta hori, niretzat, erabatekoa da, hamaika tabernetan gure diskoa entzutea baino askoz ere inportanteago.

EGUNKARIA.— Kantu batzuetako hitzak aldatu dizkizute, ezta?

GAVILAN.— Bai, hori esan zidaten Eguzki Irratikoek, intsumisioaren kantuan 'me hago de la ETA' zatiaren orde ez dakit zer 'de la tia Cleta' kantatzen omen dutela. Beno, ez gara istiluetan sartuko horregatik, kanta dezatela nahi duten moduan. Jendeak ezagutzen ditu jatorrizko hitzak eta, gainera, bertsio bat egiten denean, nahiz eta oso kutrea izan, iruditzen zait beti geratzen dela

Pasa den ekainean lehen diskoa kaleratu zutenetik ez du aurkezpenik behar, baina tira...

Gavilan da, oraindik Eskroto zela Mexikora aurreneko bidaia egin eta bueltan rantxerak kantatzeko grina-

rekin etorri zen Tijuana in Blue-ko taldekide ohia. Bere grinak zenbait lagunaren asmoekin egin zuen topo eta handik sortu zen Kojon Prieto y los Huajolotes, aurtengo udako talderik dantzatuena.



Mikel eta Gavilan.

JOXE LACALLE

jatorrizko kantuarekiko mirespenaren arrastoren bat.

EGUNKARIA.— Lore-etxea bota zutenetik entsaiatu gabe segitzen duzue?

GAVILAN.— Bai.

EGUNKARIA.— Eta horrela doakizue.

MIKEL.— Meritua du, bai.

GAVILAN.— Noski baietz, arte puru-purua da. Duela urtebete, oraindik okerrago jotzen genuenean, esaten genuen bezala: zenbait aktuazio gaizki aterako dira, baina beste zenbait...

MIKEL.— Ere bai.

EGUNKARIA.— Jende pila duzue inguruan: zer-nola moldatzen zarete, musikatik bizitzeko adina ematen al du?

MIKEL.— Zenbaitek ordaindu egin behar dute gurekin etortzeko. Besta batzuek, berriz, kobratu egiten dugu.

GAVILAN.— Lana egiteko gogorik ez baduzu, honetatik bizi behar duzu, ez dago beste aukerarik. Orain ongi gabilta, aktuazio pila bat eduki baitugu abuztuan, baina negua, herrietako jaiarik gabe, ez da gauza bera izango, Inem-era joan beharko dugu.

Mexikoko iparraldeko talde elektrifikatuak entzun eta gero hain txarrak ez garela esan dezaket».

Orain arte neure izerditik eta Gobernuaren kontura bizi izan naiz. Beraz, ez nau gehiegi kezkatzen.

EGUNKARIA.— 'Napar-mex' ez den zerbait, bestelako musikaren bat egitea pentsatu duzue?

GAVILAN.— Mundu guztiak gauza bera galdetzen digu, honek luze iraungo ez duelakoan, baina gauza bera zioten iaz eta hemen gaude oraindik. Argi daukagu: jendea napar-mexaz aspertzen bada, akabo, beste zerbait egingo dugu. Ez dakit, musika tibetarra agian. Orain euskal rock radikalaren bertsioak egiten ari gara: Barricada, Polla Records, RIP, Cicatriz eta horrelakoak, baina gure doinuak. Aktuazioak bukatzen direnean, lasaigo, kantu berriak egiteari ekingo diogu.

EGUNKARIA.— Uztailan Mexikon izan zinen. Ezer berririk ikasi zenuen?

GAVILAN.— Mozkortzera joan nintzen gehienbat, baina beti ikasten da zerbait. Iparraldeko musika talde elektrifikatuak entzun eta gero, adibidez, hain txarrak ez garela esan dezaket. Txarrak gara, baina Mexikon lasai jo genezake, ez baitago hain alde handia. Hemengo herrietan jotzen dugunean, agureak aztoratu egiten dira, Jorge Negrete, Infante, Mejia eta maila horretako rantxerak bakarrik ezagutzen dituztelako. Baina Mexikoko iparraldeko talde horiek entzungo baliatuzte, gehiago estimatuko gintuzkete, askok uste dutena baino autentikoagoak gara eta.

NOSKIJATOR

© Zaldi Eroak

